

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

Getxo udalerriko Gizarte Kohesioan lan egiten duten erakundeei dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia onestea: 1go Diru-laguntza ildoak: Getxoko erakundeak mantentzea, martxan egotea eta indartzea. BDNS (Identif.): 860519.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/860519>).

Lehena. — Onuradunak

Dirulaguntzen xededunak izango dira irabazi asmorik ez duten, dagokien erregistro publikoan gutxienez urtebeteko antzinakotasunarekin erregistratuta dauden eta Gizarte Kohesioaren jarduerak Getxon eta/edo getxotarrei zuzenduta egiten dituzten erakundeak, elkarteak eta fundazioak.

Bigarrena. — Xedea

Lerro horren xedea asoziazionismoa sustatzea eta indartzea eta Gizarte Kohesioari lotutako erakunde sare handia sortzeko lan egitea da.

Hirugarrena. — Deialdia

Deialdia Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 30ean, 252 zenbakiko akordioaren bidez onetsi zen eta Getxoko udaleko webgunean argitaratuko da deialdiaren argitarapenaren hurrengo egunean.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 135.720 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskerak aurkezteko epea

Epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau, diru laguntzen datu base nazionalaren bidez, Bizkaiko aldizkari Ofizialean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Getxon, 2025eko irailaren 30ean.—Gizarte Kohesiorako Zinegotzia, Carmen Díaz Pérez